

## MATRIKULAZIO PROZESUA

### MATRIKULA NOLA OSATU:

Udako Ikastaroen izen-ematea online egingo da TKNIKAKo web orrian ([www.tknika.eus](http://www.tknika.eus)) sartuz. Bertan, IKASTAROAK atalera jo eta “Euskal Herriko LHko Udako Ikastaroen II. Edizioa” atazan aurki daitezke ikastaroak.

Jarraitu beharreko PAUSUAK hauek dira:

- 1.- Izen-ematea egin nahi den ikastaroa aukeratu.
- 2.- Ikastaroko informazioa irakurri eta IZENA EMAN zanpatu.
- 3.- Matrikula orrian eskatzen diren datu GUZTIAK osatu.

#### Oharrak:

- Eskatzen diren eremuetako datuak NANean adierazten diren bezala idatzi.
- Ikastetxe atalean:
  - \* EAEko LHko irakasleak: dagokion LH ikastetxea aukeratuko du.
  - \* Empresa langilea edota beste erkidegoetako irakasleak: Zentru atalean “Otroso” hautatu eta Oharrak atalean enpresako/ikastetxeko datuak adierazi (izena, helbidea eta telefono zenbakia).
- 4.- DBLO eta JIL klausulak irakurri eta baldintzak betetzen direla onartu.
- 5.- Amaitzeko GORDE zanpatu.
- 6.- Izena-eman duen pertsonak email bat jasoko du (matrikulan adierazitako email helbidean) prozesua ondo burutu duela baieztatuz. Konfirmazio emaila jasotzen ez bada Tknikarekin harremanetan jarri (Esther Larrañaga 943.08.29.00 edo [cursosverano@tknika.eus](mailto:cursosverano@tknika.eus))

### MATRIKULAZIO DATAK ETA EPEAK:

- **Plaza kopurua:** 15 (gutxienez 10 pertsona / gehienez 15 pertsona)
- **Izena emateko azken eguna:** 2018ko ekainaren 8a
- **Ebazpena:** 2018ko ekainaren 11. Izena eman duten guztiei adieraziko zaie, posta elektronikoaren bitartez, ikastaroan onartuak edo itxaron zerrendan geratu diren.
- **Matrikula ordaintzeko azken eguna:** 2018ko ekainaren 18a
- **Matrikularen kostua:** ikastaro bakoitzean adierazita dago.

### ZEINTZUK DIRA AUKERAKETA IRIZPIDEAK?

- Izen-emateak, eskainitako plaza kopurua gainditzen badu, ikasle hautaketa izen-emate ordena jarraituz egingo da.
- Plaza kopurua honako proportzioak kontutan hartuz banatuko dira:
  - Beste erkidegoetako LH irakasleak eta enpresako langileak: plazen %80.
  - EAEko LHko irakasleak: plazen %20.

### NOLA EGINGO DA MATRIKULAREN ORDAINKETA?

2018ko ekainak 11ean persona orori adieraziko zaio ikastaroan zein egoeratan dagoen.

#### ONARTUAK izan diren pertsonak:

\* EAEko LHko irakasleak: formakuntza DOAKOA da. Tknikak, beharrezkoa ikusten badu, pertsona honi LHn irakasle lanetan ari dela adierazten duen justifikazioa eska dakioko.

\* Beste erkidegoetako irakasleak eta enpresak:

- Ordainketa tanda bakarrean egingo da, matrikularen %100 ordainduz.
- Onartua izan den pertsonari emailaz igorriko zaio zein kontura egin behar den transferentzia.

- **Ordainketa epea: 2018ko ekainak 18a**

Zalantzarik izanez gero Nerea Arriagarekin harremanetan jarri (943.08.29.00 edo [narriaga@tknika.eus](mailto:narriaga@tknika.eus))

#### ITXARON ZERRENDAN geratu diren pertsonak:

- Ikastaroa hasi aurretik, onartuen artean bajarik balego, formakuntza arduraduna, itxaron zerrendan geratu diren pertsonekin harremanetan jarriko da plaza lehen bait lehen ordezkatzeko.